



HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ON LINE EBALUAZIO-PROBETAN DENBORA GEHIAGO EZARTZEKO JARRAIBIDEAK

Hurrengo jarraibideak errazten dizkizugu azterketa egiteko denbora gehiago behar duten ikasleei ezartzeko.

Egelan kalifikazio automatikoa errazten duen kalifikazio-tresna erabiliena **galdetegia** da. Eskuzko kalifikazioaren kasuan, aldiz, **zeregina** (edo ataza ere deiturikoa) da erabiliena. Bi kasuetan ikasle-talde osoarentzat zein ikasle konkretuentzat denbora-mugak ezar daitezke. Gainera, ikasle konkretu bati, edo batzuei, denbora espezifiko bat egokitzeko "mugatu eskuragarritasuna" aukera ere badago, baina era horretan eginez gero egela horretako ikasle guztiek ikusiko lukete denbora-muga desberdinak esleituta dituzten ikasle batzuk daudela. Beraz, anonimatua babesteko helburuz, beste aukera bat **erabiltzea gomendatzen dugu, konkretuki, "erabiltzaile salbuespenak" aukera bai galdetegietan bai zereginetan aplikagarria baita**. Ondoren, grafikoki azaltzen da nola egin dagoeneko sortuta dagoen galdetegi baten kasuan. Era horretan eginda, irakasleek eta dagokion ikasleak bakarrik ikusiko lukete goera berezia.

The screenshot shows the eCampus interface for a course titled "IKASKETA JARRAITURAKO ATAZAK - Ikasgaiak, testak, ariketa osagarriak, eta abar". The page includes a sidebar with navigation options like "Partaideak", "Dominak", "Kalifikazioak", "Atalak", "Orokorra", "Irakasleak", "Ikasteko material idatzia eta Ariketak", "Transparentziak eta bideoak", "IKASKETA JARRAITURAKO ATAZAK - Ikasgaiak, testak, ariketa osagarriak, eta abar", "Laborategia: Algoritmo Errekurtsiboak", "Azterketak edota proba idatziak", and "Ebaluazioa". The main content area lists several resources, with "Test-aurre eta postbaldintzak" highlighted in yellow and circled in red. The URL at the bottom is https://egela.ehu.eus/mod/quiz/view.php?id=1766817.

1. irudia. Ikastalde osorako egindako galdetegiaren gainean zuzenean sakatu (ez joan editatu atalera)

Azterketetan denbora gehiago behar duten ikasleari neurri hau ezartzerakoan eGelan hurrengo mezua agertuko zaizue:

"Ikasleak ez du rol edo talde egokirik galdetegi honi erantzuteko"

Mezu horrek ikaslea galdetegira sartzeko baimena ez duenik adierazten du eta arrazoa oso sinplea da: galdetegia ezkutatua dagoela. Galdetegia ikusgai jartzearekin konpontzen da.



2. irudia. Agertuko zaizun pantailan engranajeen (gurpilean) sakatu

3. irudia. **Erabiltzaile-salbuespenak** atalean norberaren denbora-mugak esleitu

Eta bukatzeko

1. GAUR zerrendan denbora gehiagoren premia adierazten duen ikasle bakarra egonez gero klik egin "gorde" botoian.
2. GAUR zerrendan denbora gehiagoren premia adierazten duen ikasle bat baino gehiago egonez gero klik egin "Gorde eta sartu beste salbuespen bat" botoian.